

IKASTOLAK



estatus politikoa
Orain
2008
MAITZA

Informatzen



Joan zen maiatzaren 20ko lanuzteak eragin zabala izan zuela bistakoa izan zen. Hori hala gerta zedin, nahitaezkoa gertatu zen ikastoletako langileen jarrera eta ekina, eta delegatuen lidergoa langileen batzarrak bideratzen, informazioa txoko guztietara helarazten, eta bozketak zuzentzen. Guztion ekarpenari zor zaio lanuzteak izan duen arrakasta.

Eta lanuztearen bidetik, haren segida oparo moduan ikusten dugu Bilbon egin zen manifestazio historiko jendetsua. Historikoa, ekimen sozialeko eta ikastoletako langileok estreinakoz pankarta beraren atzean elkar hartu dugulako.

Bihoakie hemendik gure eskerrik eta zorionik beroenak ekimen honetara bildu diren langile guztiei. Borroka hau hasi besterik ez da egin, eta hemendik aurrera egin behar diren ekintzen berri izango duzue.

Goiari eutsi, onenak emateko gaudel!

LAB
Irakaskuntza